

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2014ko APIRILAREN 3an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2014ko apirilaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Imanol Aranzabal Lasa
Aritz Usandizaga Larrañaga

Bere ezin etorria azaltzen dute: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea, Karlos Irazu Muñoa eta Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2014ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Tolosaldea Garatzen S.A. n lehentasunezko erosketa eskubideari uko egiteko adierazpena, hala bada.**
4. **Tolosaldea Garatzen S.A.n Kapital murrizketaren onespena, hala bada.**
5. **2014 urterako Tolosaldea Garatzen S.A.-ri egin beharreko ekarpena burutzea, hala bada.**
6. **Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2014ko 1. Eta 2. Hiruhilabetko ekarpenak burutzea, hala bada.**
7. **Y.P. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
8. **2014 urterako udal langileen egutegiak onartzea, hala bada.**
9. **Fakturak eta ordainketak.**
10. **Beste batzuk.**
11. **Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 2014 urteko martxoaren 13ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN S.A.-n LEHENTASUNEZKO EROSKETA ESKUBIDEARI UKO EGITEKO ADIERAZPENA, HALA BADA

Ikusirik, Tolosaldea Garatzeneko Administrazio kontseiluak 2014/03/13ko datan osatutako txostenean 0,1 euroko balio nominala duten 62.830 akzio berri jaulkiz SEI MILA BERREHUN ETA LAROGEITA HIRU EURO-tako (6.283,00) kapital zabalkundea proposatu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Kapital zabalkundeko proposamen horren aurrean, Larraulgo Udalak lehentasunezko erosketa eskubidea erabiltzeari uko egitea erabaki duela, Kapital Sozietateen Legeko 304 artikulua aurreikusten duenaren arabera.


BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN S.A.-n KAPITAL MURRIZKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Tolosaldea Garatzeneko Administrazio kontseiluak 2014/03/13ko datan osatutako txostenean 0,1 euroko balio nominala duten 62.810 akzio amortizatuz SEI MILA BERREHUN ETA LAROGEITA BAT EURO-ko (6.281,00) kapital murrizketa proposatu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Kapitala murrizteko proposamen horren aurrean, eta akziodun moduan eragiten dion neurrian, Larraulgo Udalak, kapital murrizketa proposamen horretan aurreikusten den moduan egitea, onartu duela, Kapital Sozietateen Legeko 329 artikulua aurreikusten duenaren arabera.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2014 URTERAKO TOLOSALDEA GARATZEN S.A.-ri EGIN BEHARREKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2014ko urtarrilaren 13ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2014 urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 3.198,88 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen da, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzeni, 2014urteko lehen ekarpena burutzea, hau da, 1.599,44 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 1.599,44 eurotako gastua onestea.


SEIGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2014 ko 1. ETA 2. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2014ko martxoaren 20an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2014 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.000,00 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2014 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 13.000,00 eurotako gastua onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

Y.P. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Y.P. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Herri Ostaturia kudeatzen duen pertsona izanik, eta udara laster delarik, kanpoan jartzen dituen mahaletan itzala emango duen toldo bat jartzeko baimena eskaera egiten duen. Toldoa Udaletxeko paretan egongo da lotuta, beltza kolorekoa izango da eta 3,58 metro izango ditu.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Y.P. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Herri Ostaturia kanpoan jartzen den terrazan itzala eman dezan, toldo bat jartzeko baimena ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Y.P. andreak ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2014 URTERAKO UDAL LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA, HALA BADA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2014 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2014 urterako Udal langileek aurkeztutako egutegiak onartzea.


BEDERATZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

OSTARBI ERAIKUNTZAK

14.300,14



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

DISTRIBUCIONES LOPETEGI	162,54
GRUPO FRANCIS LEFEBVRE	416,06
IZFE	1.816,62
EBA ERKIZIA	608,77
LIDOINSA	861,22
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.619,98
MOVISTAR	133,46
MOVISTAR	63,16
MOVISTAR	17,81
MOVISTAR	19,34
GAS NATURAL FENOSA	22,11

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **22.041,21** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez:

10.1. BELAKO PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2014 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariaren harpidetzarekin jarraitzeko eskaera kontutan hartzea, eskatzen duten.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Udalak, 2014 urtean Txantxangorri aldizkariaren harpidetzarekin jarraitzea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

10.2. AIZTONDON ELKARTASUN EGUNAREN TALDEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, Aitondon Elkartasun egunaren taldeak eginiko eskaera, hau da, apirilaren 26an Larraulen antolatu behar den Aiztondon Elkartasun Egunean, hainbat ekimen egin behar direla. Horretarako Larraulgo udalak dituen azpiegiturak erabiltzeko baimena eskaera egiten dute, hauen artean, frontoia, plaza, mahaiak etb.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondon Elkartasun Eguna taldeak egin duen eskaera onestu, hau da, datorren apirilaren 26an Larraulen ospatuko den Aiztondon Elkartasun Egunean, antolatuko diren ekitaldietarako Udalak dituen azpiegiturak erabiltzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Aiztondon Elkartasun Eguna taldeari ematea.

10.3.TOLOSALDEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOTARAKO IAE FUNTSA SORTZEA.

Ikusirik Tolosaldea Garatzen-ek eginiko eskaera, hau da, Tolosaldeko proiektu estrategikotarako IAE funtsa bat sortzea, udalaren ekarpen ekonomikoak eginik. Ekarpeneren zenbatekoa, udalak aurreko urtean IAE kontzeptuan kobratu duen zerga bilketaren % 10 a izango delarik. Konpromiso hau 2014,2015,2016 eta 2017 urteetarako izango da.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko proiektu estrategikotarako IAE funtsa sortzeari onespina ematea. Larraulgo udalaren ekarpen ekonomikoa, aurreko urtean IAE kontzeptuan kobratu den zerga bilketaren % 10a izango delarik. Konpromisoa 2014,2015,2016 eta 2017 urteetarako izango delarik.


BIGARRENA: Erabaki honen ondorioz, Tolosaldea Garatzeni 206,87 eurotako ekarpena burutzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldea Garatzeni ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

12.1.AIZTONDORA EGUNA 2014-RI ATXEKIMENTUA.

Udalbatzak, aho batez, ondorengo



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Apirilaren 26an Larraulen burutuko den Aiztondora Elkartasun Egunari atxikimendua ematea, bertan antolatuko diren ekimenetan parte hartuz.

BIGARRENA: Udalerriko herritarrei, apirilaren 26an Larraulgo herrian antolatuko diren ekimenetan parte hartu dezaten gonbitea luzatzea.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA